

Familia Santua: Jesus, Maria eta Jose (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu.

Ben Sirak liburutik Si 3,2-6.12-14

Jaunak seme-alaben gainetik errespetarazten du aita,
amaren aginpidea ezartzen umeen gain.

Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu,
ama errespetatzen duenak altxorra metatzen.

Aita ohoratzen duenak bere seme-alabengan izango du poza,
otoitz egitean Jaunak entzun egingo dio eskaria.

Aita errespetatzen duenak bizitza luzea izango du,
Jaunak esana egiten duenak atsegin emango amari.

Seme, zaindu aita bere zahartzaroan,
ez eman nahigaberik bizi den artean.

Burua galtzen badu ere, izan barkabera;
ez iraindu, indarrez betea zaudela eta.

Ez du Jaunak ahaztuko aitari on egina,
zeure bekatuen ordainetan hartuko dizu kontuan.

Jaunak esana.

Edo.

Jaunari uzten diot haurra, bizitza osorako Jaunari eskainia izanen da.

Samuel egindako lehenengo liburutik 1,20-22.24-28

Egun haietan, haurdun gertatu zen Ana eta, garaia betetzean, semeaz erdi zen. Samuel eman zion izena, esanez: «Jaunarengandik dut hartua ».

Elkana, bere etxekoekin, Jaunari urteroko oparia eskaintzera eta promesa betetzera igo zen hurrengo urtean ere; Ana ez zen igo eta esan zion senarrari:

–Ez naiz joango haurrari bularra kendu arte; orduan, eraman eta Jaunari aurkeztuko diot, eta han geldituko da betiko.

Bularra kendu ziolarik, berekin eraman zuen Anak haurra, txikia oraino, Xilora, Jaunaren etxera. Haurrarekin batera, hiru urteko zekorra, anega bat ogi-irin eta zahagi bat ardo eraman zituen. Hil zuten zekorra opari eskaintzeko, eta haurra Eliri eraman zioten. Honela ziotson Anak: «Barka, ene Jauna! Neu nauzu zure aurrean Jaunari otoizka ari izan zitzaion emakumea. Haur hauxe eskatzen nion Jaunari eta eman dit eskatzen niona. Horregatik, Jaunari uzten diot haurra, bizitza osorako Jaunari eskainia izanen da».

Orduan, Jauna gurtu zuen bertan.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 127, 1-2. 3. 4-5

R.

*Zorionekoa Jaunari begirune diona
eta haren bidetik dabilena!*

Zorionekoa Jaunari begirune diona
eta haren bidetik dabilena!

Zeure lanaren fruituaz biziko zara
eta zoriontsu izango, dena ongi zaizu joango. **R.**

Emaztea mahatsondo emankorraren antzeko
izango duzu etxe-txokoan;
seme-alabak olibondo gazteen pareko zeure mahai inguruan. **R.**

Horra Jaunari begirune dionarentzat
zer bedeinkazio!

Bedeinka zaitzala Jaunak Siondik,
goza zaitezela bizitza osoan Jerusalem zorionaz. **R.**

Edo.

Salmo 83, 2-3. 5-6. 9-10

R

Zorionekoak zure etxean bizi direnak, Jauna.

Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!

Urtzen daukat barrena zure tenpluko atarien irrikaz.

Bihotza eta naizen guztia
poz-oihuz ari zait, oi Jainko, Jainko bizia. **R**

Zorionekoak zure etxean bizi direnak, etengabe zu goresten!
Zorionekoak zuregan dutenak beren indarra
eta bihotz barruko konfiantza ! **R**

Jauna, Jainko ahalguztiduna, entzun nire otoitza,
makur belarria, Jakoben Jainkoa!

Oi Jainko, begira onez gure babeskiari,
zeuk aukeraturiko erregeari . **R**

BIGARREN IRAKURGAIA

Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan.

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik 3, 12-21

Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, jantz zaitezte bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. Izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu bata besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta guztien gainetik, jantz zaitezte maitasunez, hau baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan, horretara deitu baitzaituzte Jainkoak gorputz batean elkartuz. Eta izan zaitezte esker oneko.

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren mezua. Irakatsi eta zentzarazi elkar jakinduria osoz. Kantatu Jainkoari esker onez eta bihotzez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Eta esan nahiz egin dezazuen guztia, egizue Jesus Jaunaren izenean, honen bidez Jainko Aitari eskerrak emanez.

Emazteok, izan senarren menpeko, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maitatu emazteak eta ez izan horiekin zakar.

Seme-alabok, izan beti gurasoen esaneko, hori baitu Jaunak gogoko. Gurasook, ez sumindu seme-alabak, bihozgabe ez daitezen.

Jaunak esana.

Edo.

Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena eman digu, eta izan ere hala gara.

San Joan egindako lehenengo gutunetik 3,1-2. 21-24

Senide maiteok:

Begira zer-nolako maitasuna izan digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena eman baitigu, eta izan ere hala gara. Horregatik, mundukoek ez gaituzte ezagutzen, Aita ere ez baitute ezagutu. Ene maiteok, dagoeneko Jainkoaren seme-alaba gara, baina oraindik ez da agertu izango garena. Badakigu, izango garen hori agertuko denean, Jainkoaren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu hura.

Ene maiteok, geure kontzientziak kondenatzen ez bagaitu, berriz, uste osoz jo dezakegu Jainkoarengana, eta eskatutako guztia hartuko dugu harengandik, haren aginduak betetzen baititugu eta atsegin zaiona egiten.

Hauxe da Jainkoaren agindua: sinets dezagula beraren Seme Jesu Kristogan eta maita dezagula elkar, berak agindu bezala. Agindu hauek betetzen dituen Jainkoarekin bat eginik dago, eta Jainkoa beronekin. Jainkoa gurekin dagoen seinalea hau da: berak eman digun Espiritua.

Jaunak esana.

Aleluia Hch 16.14b

Aleluia, aleluia.

Barrutik eragin zion Jaunak,
zure Semearen hitzak gogoz onar zitzan. Aleluia.

EBANJELIOA

Jesusen gurasoak lege-maisuaren erdian eserita aurkitu zuten.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-52

Jesusen gurasoak Jerusalemera joan ohi ziren urtero errones Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, jaietara joan ziren, ohi bezala. Jaiak amaiturik gurasoak etxera abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemengandik zen, haiek jakin gabe. Erroneskideen

artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Eta, aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eseria, entzun eta galde; entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Ikusi zutenean, harrituta gelditu ziren gurasoak, eta amak esan zion:

–Seme, zergatik egin diguzu hori? Ikusi zein larri genbiltzan aita eta biok zure bila!

Hark erantzun zien:

–Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenekiten nik neure Aitaren gauzetan jardun behar dudala?

Baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen. Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi eta beraien menpe bizi izan zen. Amak gogoan hartzen zituen gertakari guztiok. Jesus haziz zihoan, bai jakinduriaz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago zuten.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>